

ITZULTZAILE ESKOLAREN INAUGURAZIOA

Donostia, 1980-X-31

Xabier Mendiguren

Egoki ezezik bidezko deritzat, Euskaltzaindiak sortua delarik, noizik behin Itzultzaile Eskolari buruzko albisteak hemen zuen, euskaltzainon, aurrean emateari.

Urte honen martxoko ohizko bileran "Dossier-Aurreprojektua" aurkeztu adierazi nizuenaren arabera, Eskolaren aurpegia garbituz eta zehaztuz joan zen: bibliografia inguratu, nota edo apunte paperak metatu, irakasleekin hizketatu, toki eta finantziaketa arazoak konponbidean jarri etab.

Udako oporren ostean, irailaren 5etik 20ra bitartean ireki zuen Eskolak bere matrikula epea, ikaslegaiari bi baldintza betetzea eskatzen zitzaizlarik: COU edo ikasketa maila baliokide baten eta Euskaltzaindiko "D" tituluaren jabe izatea.

Leku arazoarengatik eta gisa honetako irakaskuntzak harreman pertsonal guztiz estuak eskatzen dituelako, 30eko kopurutik ez pasatzea erabakia genuen eta berehalaxe bete ziren postuak. Gaurregun 33 ikasle dira matrikulatuak: Gipuzkoa osotik etorriak, baita Bizkai eta Ipar aldekorik ere badugu geure artean. Emakumezko eta gizonezkoak orekatuki aurkeztu dira, erdiz-erdi, eta adinari dagokionean 25 bat urtetatik gorakoak dira gehienak batekoz beste, eta erdia baino gehiago aurrez itzulpen lanetan eta euskararen irakaskuntzan ibilitako jendea da.

Irakaslegoari dagokionez, oraingoz lau gara iraunkorki klaseak ematen aritzen garenak:

Koro Navarro andrea: Linguistika Orokorrerako Sarrera, Gaztelaniazko Morfosintaxia, Lexikologia eta Estilistika.

Pello Zabaleta jauna: Euskal Morfosintaxia, Lexikologia eta Literatura.

Jesus Zabaleta jauna: Euskal itzulpenaren historia kritikoa.

Xabier Mendigurene: Itzulpen teoria eta testu mailakatuen itzulketak.

Klaseak goizeko 9etatik 13,30ak bitartean ematen dira eta jendearen asistentzi tasa oso handia dela esan behar dut, eta klaseak beren izaeraz aski

aktiboak direlarik, parte hartze handia nabarmentzen da ikasleen artetik, sarritan mintegi giro batean aritzeraino.

Egoitza dela eta, komunikabideetatik jakin bide duzue, Miramonen, Donosti-Aurrezki-Kutzak adei handiz utzi dizkigun Arbide-Dorreetako geletan gaude behin-behinekoz, arik eta Diputazioak eta Aurrezki Kutxa Probintzialak eskainiko diguten egoitza iraunkorragora lekuz aldatu arte.

Finantziaketari dagokionez, Eskolaren urteko aintzikontua 2 milioi eta erditik gorakoa da, eta CEGASA enpresak ordaintzen du 80 %, gainerako 20 % Euskaltzaindiaren eta ikaslegoaren artean erdibanatzen delarik.

Lehenago esan dudanez, hil honen 6an eman zitzaion hasera Eskolari Arbide dorreetan, Diputazioko Lehendakaria, Xabier Aizarna jauna, Donosti-Aurrezki-Kutzaren Zuzendaria, Xabier Alkorta, Euskaltzainditi A. Villasante, J. San Martin eta J. L. Lizundia jaunak bertan zirelarik.

Txosten labor hau bukatu aurretik, Eskolaren inaugurazioan A. Villasantek egindako sarrera hitzalditiko bizpahiru ideia eskaini nahi nizkizueke, une hartako izpiritua adierazgarri gisa. Itzulpenak gure artean dituen zailtasunen zerrenda egitean, Axularrek jadanik esan bezala euskarak beste hizkuntzekiko duen diferentetasuna aipatu zuen; bateratuta eta normalizaturik ez egotea, gizarte emaile eta eremu askotan gutxi erabili izana bezalako arrazoiak aipatu ondoren, azkeniko: "gu geuk, euskaldunok, geure mendean hain zuzen, gauzak diren baino zailago bihurtu ditugula" esan zuen A. Villasanten eta Kresalaren hitzaurrean Tx. Agirrek idatzia zekarren horren lekukotzat ("errezago ipiñi bearrean, dana ipiñi dogu geroago eta gatxago).

Hainbeste mendetako tradizioari uko egin eta hertsikeria baten ondorioz, euskara, zekarren bidetik saihestu eta bakar bidetik eraman nahi izan dugula zion Villasantek. Eta hara zer galdetzen zuen: Baina euskara bakar bidean jartzea ez ote da hilotz bidean jartzea, irteerarik ez dagoen *impasse* batera hizkuntza eramatea? Zuek, Eskola honetako ikasle-irakasleok, problema nahasi horietan argi egiten lagundu beharko diguzue.

Hona hemen Euskaltzainburuak egin zigun erronka. eta nik gaurko aukera honetaz baliatuz, euskaltzainoi, zuei guztioi ere egin nahi nizekeena. Itzulpen on eta zehatzak, mezua ongi emanez euskararen berezko legeak errespetatuko dituenak, gero eta segurtasun eta ekonomi handiagoz egin nahi baditugu, alde batetik euskararen erabiltze soziala areagotzen biziki saiatu beharrean gaude eta bestetik ari garen bidetik, zentzuz eta orekaz, tradizioa eta euskara bizia uztartuz euskara finkatzen eta bateratzen ahalegindu behar. Ez dakizue zenbat eskertzen dituen itzultzaileak Euskaltzaindiak, azken aldiotan hartutako erabakiak, batzutan har zitezkeen onenak ez direla jakin arren ere!

Besterik ez, eskerrik asko entzuteagatik eta zuen eskura nauzue galderaren bati erantzun beharrik balitz.